

07/05 IRIZPENA

Konrado Mugertza jn.
Gaizka Gabantxo jn.
Iosu Gangoiti jn.
Javier del Campo jn.
Miren Izagirre and.
José Ramón Kortabitarte jn.
Gonzalo Larruzea jn.
Raimundo Rubio jn.

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2007ko ekainaren 5eko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: Musika Ikasketa Profesionalen curriculuma zehazten duen eta ikasketa horietarako sarbidea arautzen duen dekretu proiektuari buruz.

Eva Blanco and.
Idazkari teknikoa.

SARRERA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Euskadiko Eskola Kontseiluari eskatu dio aginduzko txostena eman dezala Musikako Lanbide Ikasketen curriculuma zehazten duen eta EAEko eremuko sarbide proba arautzen duen dekretu proiektuari buruz. Halaber, aholkularitza juridikoaren txostena eta Hezkuntza Berri-tatzeko Zuzendaritzaren memoria ere igorri dizkio.

AURREKARIAK

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak dio musika eta dantzako lanbide ikasketa, besteak beste, arte ikasketen barruan sailkatzen direla. Legeak xedatzen du ikasketa hauek maila profesionalean antolatuko direla eta sei ikasturte izango dituztela.

Beste alde batetik, 6.4. artikulua xedatzen du hezkuntzako administrazioek zehaztuko dutela lege horretan araututako ikasketen curriculuma, eta bertan jasotako oinarriko alderdiak curriculum horretan islatuko direla.

Abenduaren 22ko 1577/2006 Errege Dekretua, musikako lanbide ikasketetako curriculumaren oinarriko puntuak finkatzen dituena, instrumentu edo ahots espezialitatea ikastean oinarritzen da betiere curriculumaren ardatz egituratzaile gisa, eta bestetik, aurrera segitzen du egitura irekiago eta malguago baten bidean. Arte eszenikoetako estetika berriek proposatzen dituzten tresna kontzeptualekin lotutako espezialitate berriak sortzen dira. Beste alde batetik, ziurtatu egiten da hezkuntzako administrazioek jarraitu ahal izango dutela eskatzen instrumentu eta ahots espezialitateak zabaltzea. Beste berri-

tasun bat da taldeko praktika instrumentala gizarte harremanetarako eta instrumentisten eta kantarien artean ideiak trukatzeko tresna gisa lantzea.

EDUKIA

Dekretu proiektu honek 22 artikulua, 4 xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat, 2 azken xedapen eta 2 eranskin ditu .

1. eta 2. artikuluek dekretuaren helburua eta haren aplikazio eremua zehazten dituzte, hurrenez hurren.

3. artikulua zehazten du ikasketa hauek sei ikasturteko iraupena duen maila batean antolatzen direla. 4. artikulua curriculum definitzen du eta 5. eta 6. artikuluek ikasketa hauen helburu orokorrak eta berariazkoak zehazten dituzte, hurrenez hurren.

7. artikulua lanbide ikasketa hauen espezialitateak zehazten ditu. 8. artikulua ikasgai motak finkatzen ditu eta hurrengo artikuluetan definitzen dira: guztientzako nahitaezko ikasgaiak (9. artikulua); espezialitateko nahitaezko ikasgaiak (10. artikulua); hautazko ikasgaiak (11. artikulua).

12. artikulua lanbide espezializaziorako programak arautzen ditu. 13. artikulua ikastetxeko curriculum proiektua jorratzen du eta 14.ak programazioak, 15. artikulua tutoretza eta orientabidea jasotzen ditu eta 16. artikulua ebaluazio irizpideak zehazten ditu.

17. artikulua ikasturte berean geratzeko edo hurrengora igartzeko irizpideak zehazten ditu. 18. artikulua ikasketa hauen agiriak eta titulazioak ari da. 19. artikulua elbarritasunen bat duten ikasleen sarbidea arautzen du. 20. artikulua ikasgai bakoitza zein irakaslek irakatsi behar duen finkatzen duen araudia aipatzen du. 22. artikulua ikasturte batean baino gehiagotan matrikulatzeko aukera jasotzen du.

Lehen xedapen gehigarria ikasketa hauen eta bigarren hezkuntzako arteko bateragarritasunari buruzkoa da. Bigarrenak zehazten du hautazko ikasgaiak ezartzeak ez duela ekarriko irakasleen kopurua handitzea. Hirugarrenak xedatzen du sarbide proban batez besteko notak probaren %50 balioko duela gehienaz ere musikako lanbide titulua dutenentzat.

Laugarrenak azaltzen du LOE Legeak 50. artikuluan aipatzen dituen ikastetxeak musika eskolak arautzen dituen 289/92 Dekretuan zehaztutakoak direla.

Xedapen indargabetzaileak indarrrik gabe uzten du irailaren 20ko 250/2005 Dekretua erdi mailari dagokionean.

Lehen azken xedapenak arautegi garapena baimentzen du eta bigarrenak araua indarrean noiz sartzen den zehazten du.

I. eta II. eranskinek ikasgaien banaketa ikasturtez ikasturte eta ordutegien arabera eta musikako lanbide ikasketen curriculuma jasotzen dituzte.

BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK

Dekretu honen xede nagusia musikako lanbide ikasketen curriculuma finkatzea da.

Zioen azalpenean esan bezala, Dekretua prestatzerakoan kontuan hartu dira abenduaren 22ko 1577/2006 Errege Dekretuaren alderdi nagusiak, hala nola, oinarrizko eta erdi mailako curriculuma ezartzen duen irailaren 20ko 205/2005 Dekretuarenak ere.

Dekretu proiektu hau aztertzean atentzioa ematen du ebaluazioari buruzko 16.4. artikulua edukiak, honela baitio: “irakasleek ebaluatuko dituzte: irakaskuntza prozesuak eta ikasleek ikasitakoa”.

Ez da aipatzen aurreko dekretuak zekarren irakastearen beraren ebaluazioa. Gutxienezko irakaskuntzei buruzko Errege Dekretuan jasotzen ez den arren, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako gutxienezko irakaskuntzei buruzko Errege Dekretuetan, ordea, jaso egiten da, eta Euskal Autonomia Erkidegorako oinarrizko irakaskuntzen curriculumaren zirriborroan esaten da: “Hezkuntza Sailak prozedura arauak zehaztuko ditu **ikasleak ebaluatzeko eta prestatu eta zabaldu egingo ditu orientabideak ikastetxeek eta irakasleek irakastearen beraren ebaluazioa egin dezaten**”.

Badakigu zaila dela ebaluazio hori gauzatzea eta praktikan ez dela egin, baina gure iritzian komenigarria da gai hau artikuluetan jasotzea eta, era berean, irakasleentzako orientabideak prestatu eta zabaltzea ebaluazio hori egin dadin.

Amaitzeko, eta kontuan hartuta gure aburuz dekretu proiektu hau oinarrizko arau-ekin bat datorrela, eman nahi den prestakuntzarako proposatutako curriculum garapena egokia izanik eta era egokian adierazita dagoelarik, egoki deritzogu aurkeztu zaigun dekretu proiektuari.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2007ko ekainaren 6a

IDAZKARI TEKNIKOA,

Sinaturik: Eva Blanco

Ikus-onetsia

KONTSEILUBURUA,

Sinaturik: Konrado Mugertza

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA
SAILBURUA.